

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HIRIGINTZA

Gasteizko HAPOko Salburua eta Zabalgana eremuetako ekipamendu eta etxebizitza planari dagokion hirigintzako jarduketa-programaren birpartzelazio proiektua

2016ko uztailaren 22an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen Gasteizko Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Salburua eta Zabalgana eremuetako ekipamendu eta etxebizitza planari dagokion hirigintzako jarduketa-programaren birpartzelazio proiektuarekin lotuta:

1. Hasierako onespena ematea Gasteizko Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko Salburua eta Zabalgana eremuetako ekipamendu eta etxebizitza planari dagokion hirigintzako jarduketa-programaren birpartzelazio proiektuari. B y A, SLP taldeak idatzi eta 21 Zabalgunea SA udal hirigintza elkarteak aurkeztu du, Salburuko eta Zabalganeko jabeen elkarteek eta Gasteizko Udalak eskaturik; sozietateko zerbitzu teknikoak egindako txostenean ezarritako betebeharrak bete beharko dira behin betiko onespeneren aurretik.

2. Hilabeteko epea irekitzea jendaurreko informaziorako eta interesdunentzako entzunaldirako –hitzordu pertsonalaren bidez–. Izapidea ALHAOn, Udalaren iragarki taulan eta lurraldeko bi egunkaritan iragarriko da, interesdunek horren berri izan dezaten eta egoki iriztitako alegazioak eta erreklamazioak aurkezterik izan dezaten.

3. Jendaurrean jartzeko epean, dosierra 21 Zabalgunea SA Gasteizko udal hirigintza elkartearen egoitzan —GureTxokoa eraikina, Frai Francisco Vitoria ibilbidea, 21 C— egongo da ikusgai, horrek eragiten diela uste dutenek aztertzerik izan dezaten, baita egokitzen jotzen dituzten ohar eta alegazioak aurkezterik ere.

4. Ebazpen hau jabeei eta interesdunei jakinaraztea, eta batzar hauei: Zabalganeko 1. sektoreko Jardute Bakarreko Unitateko konpentsazio batzarra, 2. eta 3. sektoreetako Jardute Bakarreko Unitateetako konpentsazio batzarra, 4. sektoreko Jardute Bakarreko Unitateko konpentsazio batzarra, 5. sektoreko Jardute Bakarreko Unitateko konpentsazio batzarra, eta 6. sektoreko Jardute Bakarreko Unitateko konpentsazio batzarra; Salburuko 7. eta 8. sektoreetako Jardute Bakarreko Unitateetako konpentsazio batzarra, 9. sektoreko Jardute Bakarreko Unitateko konpentsazio batzarra, 10. sektoreko Jardute Bakarreko Unitateko konpentsazio batzarra, 11. sektoreko Jardute Bakarreko Unitateko konpentsazio batzarra, 12. sektoreko Jardute Bakarreko Unitateko konpentsazio batzarra, 13. sektoreko Jardute Bakarreko Unitateko konpentsazio batzarra, eta 14. sektoreko Jardute Bakarreko Unitateko Hitzarmen Batzarra; orobat, Salburuko eta Zabalganeko jabeen elkartei jakinaraztea.

Vitoria-Gasteizen, 2016ko uztailaren 26an

Alkate lehendakaria
GORKA URTARAN AGIRRE